TTONTTORMENDI

Urtzi Iraizoz Remiro

Ipuin musikatua / Cuento musicado

Akordeoia / Acordeón

Nekane Iturriozi, esker onez.

OHARRAK:

Ttonttormendi haur hezkuntzako umeekin lantzeko ipuin musikatu bat da. Ipuinaren gidoi bat gehitzen da hurrengo orrialdeetan, nahi duenak libreki gara dezan. Eszenaratzeko orduan, gainera, edozein euskarri bisualen laguntza balia daiteke (kamishibaia, txontxongiloak eta abar...)

Hitzezko pasarte bakoitzaren ondoren, dagokion musika pieza entzungo da, azkeneko zatian izan ezik (IX), non, musika kontakizunari gainjarriko zaion, biak batera amaituz.

Kontzertuko bertsio bezala ere taulara liteke Ttonttormendi. Hala egin nahi bada, azken piezatxoa bazter utzi eta lehen zortzi zatiak interpretatuko dira.

NOTAS:

Ttonttormendi es un cuento musicado orientado a niños de educación infantil. En las siguientes páginas se incluye un guión de la obra para que, quien lo desee, pueda desarrollar la historia. Para ello, podrá emplearse cualquier soporte visual (Kamishibai, títeres, etc...)

A cada fragmento de la historia le seguirá la correspondiente pieza musical, excepto al final (IX), donde el relato y la música se solaparán para concluir a la vez.

La obra también puede ser interpretada en versión de concierto. En tal caso, se prescindirá de la última pieza (IX).

1.

Ane eta Miren Ttonttormendi izeneko herri txiki batean bizi diren bi neskato alai dira. Uda iritsi berri da eta , eguzkia lagun, herrian zehar paseoan irtetea erabaki dute. (I)

2.

Kalerik kale dabiltzala, urrutiko mendixka batean etxe misteriotsu bat ikusi dute. Jakinminak bultzatuta bertara abiatzen dira. (II)

3.

Etxe misteriotsura iristean, inguruetan kuxkuxean hasten dira. Etxe guztia hesiz inguratuta dago. Animalia batzuen orro tristeak entzuten dira... (III)

4.

Hanka-puntetan, lehio txiki batera gerturatzen dira. Barruan gizon zatar bat ikusten dute. Kaiola txiki batean norbait preso daukala ohartu dira gure bi neskatoak. (IV)

5.

Aiene ahul batzuk entzuten dituzte orduan eta, arretaz begiratuta, kaiolan preso dagoena mutil bat dela jabetzen dira. Negarrez ari da mutila. (V)

6.

Neskek etxeko paretean zulo txiki bat dagoela deskubritzen dute. Etxe barrura sartu eta, gizona loak hartu duela probextuz, kaiolaraino iritsi eta mutila askatzea lortzen dute. (VI)

7.

Behin etxetik kanpo, Jonek -halaxe deitzen da mutila- bere istorio latza kontatzen die. Gizon gaiztoa zirko baten jabe da eta berarentzat lan egitera behartzen du Jon. Oso zikoitz tratatzen ditu animaliak. Beraiek ere berehala askatu behar dituztela esaten die neskei. Animaliak libratzeari ekiten diote. Halabaina, bat-batean, zirkuko musika entzuten da. Zer arraio!! Funtzioa hastera doa!! Gizon gaiztoa loalditik esnatzen hasi da, nagiak pixkanaka ateratzen. (VII)

8.

Hiru umeek ezkutuan ikusi dute gizona esnatzen eta funtziorako prestatzen. Zerbait egin beharra dute!! Isilean ihes egitea deliberatu dute. Ttonttormendirako bueltan, ordea, norbait jarraika edukiko dute atzetik...(VIII)

9.

Zelatan jarraitu ditu etxera bueltan gizonak, baina haurrek, animaliekin bat egin eta bultzaka bultzaka erreka baten sakonera botatzea lortu dute. Hantxe utzi dute gizajoa, itotzear, ura leporaino iristen zaiola.

Geroztik denak zoriontsu bizi izan dira Ttonttormendin: Ane eta Miren jostakide berri bat topatu dutelako; Jon, aske bizitzea zein polita den ikusi duelako eta animaliak, ongi tratatzen dituzten lagun berriak egin dituztelako. (IX)

1.

Ane y Miren son dos niñas muy alegres que viven en el pequeño pueblo de Ttonttormendi. Ha llegado el verano y , en compañía del sol, deciden dar una vuelta por los alrededores. (I)

2.

A lo alto de una colina lejana divisan una casa misteriosa. Su gran curiosidad les empuja hasta allí. (II)

3.

Al llegar a la casa misteriosa, comienzan a explorar el terreno. La casa está completamente cercada. Se escuchan los tristes lamentos de varios animales...(III)

4.

De puntillas, acceden a un ventanuco. En el interior ven a un hombre harapiento. Las niñas sospechan que retiene a alguien preso. (IV)

5.

Entonces, escuchan el llanto de un niño atrapado en una pequeña jaula.(V)

6.

Las niñas descubren que hay un pequeño agujero en una de las paredes de la casa. Armadas de valor, entran en ella y, aprovechando que el hombre está dormido, liberan al chico. (VI)

7.

Una vez fuera de la casa, Jon (así se llama el niño) explica a las niñas su historia: El malvado hombre que lo tenía preso es el dueño de un circo y le obliga a trabajar para él. Este hombre es muy cruel con los animales y pide a las chicas que le ayuden a liberarlos. En ese momento, comienza a sonar una melodía de circo: "¡Oh, no, la función va a empezar!" El hombre despierta de su sueño y se despereza, poco a poco. (VII)

8.

Los tres niños observan a escondidas al hombre prepararse para la función, ¡tienen que hacer algo! Deciden escapar sigilosamente. Sin embargo, de vuelta a Ttonttormendi, alguien seguirá sus pasos... (VIII)

9.

Los tres amigos se percatan de que están siendo perseguidos por el hombre y, con ayuda de los animales, consiguen deshacerse de él. El pobre hombre acaba en el río, a punto de ahogarse.

Desde entonces, todos continúan aún más felices su vida en Ttonttormendi: Ane y Miren por haber encontrado un nuevo compañero de aventuras; Jon, por haber conseguido la libertad y los animales, por contar con personas que los cuidan bien. (IX)

I



*= *fuera de cassotto*



*=cassotto
**= fuera de cassotto

II


♩=100 Grazioso
8va
fp
mf
poco
sf
8
(mf)
poco
sf
14
legato
poco
sf
mp
19
mf
24
mp
3


30
mf
mp
35
mf
39
p

III
(Coral)



IV
(zortziko)



⋆ = *fuera de cassotto* ⋆⋆ = *cassotto*

V



*= *cassotto*

VI
(Zortziko)



⋆ = *cassotto*

VII

♩=100
gracioso pero un poco tétrico



* = *fuera de cassotto*
**=*cassotto*



⋆ = *fuera de cassotto*

VIII



⋆ = *fuera de cassotto*



* = *cassotto*



⋆ = *fuera de cassotto*

⋆⋆=*cassotto*

IX
(Coda)

𝅗𝅥=44 liberamente colla parte



⋆= *para terminar, sin diminuendo*
⋆⋆ = *repetir tantas veces sea necesario*